

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

0 positibo berri
1.587 hildako
2.265 positibo guztira*

*Hernanin 61 Astigarragan 21

NAFARROAN

4 positibo berri
517 hildako
5.344 positibo guztira
7 UCIn

Sendatuak EAEn: 17.336 ; Naf: 7.691

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



San Antonio «sinbolikoak», aurtengoak

EREÑOTZU
SAN ANTONIOAK

2



Martxan da, 'Erresistentzia Kutxa'

HERNANI
BERDINTASUNA

4-5



Pasadizo ugari, pandemia garaia erasmusen pasa dutenek

HERNANI
ERASMUS

10-11



Mende erdia beteko du gaur Galarretak

1970 urteko ekainaren 13an zabaldu zituen ateak lehenengo aldiz Euskal Jai-Galarreta enpresaren kudeaketarekin eta aurreneko jaialdiko erremonte partidua Pablo Lecumberrri eta Salsamendik, Raul eta Arbizuren aurka jokatu zuten.

15

Urumea bailarako komertzioen gida

URUMEA
KOMERTZIOAK

8-9



Bihar ekingo dio Gorka Kijerak, bigarren denboraldiari

URUMEA
FUTBOLA

14

2019ko uztako sagardoa botilan aurkeztu zen pasa den ostegunean

Euskal Sagardoko kide diren Gipuzkoako, Bizkaiako eta Arabako sagardogileen produktua ezagutzeko eta dastatzeko aukera izan zen, Chillida Lekun egindako aurkezpenean. Gutzira 60 botila aurkeztu zituzten, «%100 bertako sagarraz eginak eta kalitate -bermea dutenak».



URUMEA
SAGARDOA

7

GURIA TABERNA

Astehenean bueltan gara!!

Hemendik aurrera ostiral eta larunbat arratsaldetan ere sukaldea irekita (19:30-22.30).

Urbieta kalea 5 / 943 55 41 62

NOAOA BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa

Orduetgia:
09:30-13:30
Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

943 37 36 13 **info@noaoa.eus**

Balkoiak kolorez apainduko dituzte Ereñotzuko auzotarrek, gaurko San Antonio egun berezian

Aurten ez dira Ereñotzun «ain maiteak diren» ohiko San Antonio jaiak ospatuko, Covid-19ak eragindako egoera dela eta. Hala ere, ekintza sinbolikoak egingo dira.

EREÑOTZU SAN ANTONIOAK

Egun berezia da gaur, Ereñotzuko auzotarrentzat, izan ere, San Antonio eguna da. Eta aurtengo eguna «berezi bezain arraroa» da, Koronabirusak eragindako egoera dela medio. Ezin dira ohiko jaiak ospatu, baina txistulariak eta bertsolariak ibiliko dira bailaran zehar, auzoa girotzen. Horrez gain, balkoiak kolore biziz apaintzeko apustua ere egin dute.



Aurten ez da San Antonio jaien txupinazorik egingo. Hala ere, txistulari eta bertsolariek auzoa girotuko dute.

«Aurtengo jaiak modu sinboliko batean ospatzeko erabakia hartu dugu»

Ereñotzuko Jai Batzordea, biltzen ibili da azken hilabeteetan, San Antonioei buruzko erabakiak hartzeko, eta jakinarazi dute, «pena haundiz» erabaki dutela festak bertan behera uztea, hala ere, «aurtengo jaiak modu sinboliko batean» ospatzeko erabakia hartu dute.

EREÑOTZU JAI BATZORDEA

«Pena haundiz» hartu du, Ereñotzuko Jai Batzordeak festak bertan behera geratzearen erabakia. Hala ere, festak modu sinboliko batean ospatzea erabaki dute. Izan ere, goizean goizetik aterako dira txistulariak eta bertsolariak Ereñotzuko auzoa esnatu eta girotzera. Ekitaldi gehiagorik ez da egingo, egoerak ala behartu duelako, «azkenean gure helburua jende pilaketak saihestea da». Bilera ugari izan dituzte, hartu diren erabakiak hartzeko, eta azaldu dute, «hasieratik bileretan zalantzak izan dira na-

gusi, ezer ez zegoelako argi eta ezin zelako erabakirik hartu. Deseskalada honetan, lehenengotariko jaiak izango dira San Antonioak, eta horregatik dena izan da berria guretzat».

Oztopoak medio, Jai Batzordeak, «zerbait sinbolikoa» egiteko erabakia argi izan zuen, «ezer egin gabe ezin ginen geratu», hori horrela ohiko ekitaldirik ezin denez egin, «zerbait sinbolikoa egitea erabaki genuen».

Auzotarren iritziak kontutan hartu dira San Antonio jaien erabakiak hartzeko, «urtero moduan, Jai Batzordea bildu zen, eta bilera irekiren bat ere egin



Bilera ugari egin dituzte Jai Batzordekoek, egoerak ala eskatzen zuelako.

genuen, egia esan, jende berri askorik ez zen gerturatu, baina partaideen artean etorritako proposamenak kontutan hartu ditugu».

Txistulari eta bertsolariek gain, balkoiak apaintzeko deia luzatu dute Ereñotzun, «San Antonio jaiak oso bere-

ziak direla» adierazteko asmotan.

Aurrera begira, ekintza kulturalak antolatzeke asmoa du Jai Batzordeak, «ahal dela uztailean zehar astero zerbaitekin», eta azaldu dute aurrerago emango dutela horren berri, baina oraindik, ekintzak lotu behar dituztela.

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña, I.
Goñi, L. Goñi, A. Isasa,
B. Los Arcos, J. Osa,
M. Ramirez de Alda, I.
Santa Kruz eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

TOKIKOM

2015 **Bikain**
EUSKAL LEHIAKETA



PEFC

«Ezjakintasun haundia dago krisi honek zer eragin utziko dituen, arlo ekonomikoan zein pertsonalean»

Covid-19ak Ereñotzuko egunerokotasuna ere erabat aldatu zuen. Hori horrela, Unai Erroitzena, bertako alkateak, auzoak izan dituen aldaketa eta kalteen berri eman dio Kronikari.

EREÑOTZU AUZO UDALA

Nola esango zenuke aldatu duela Covid-19ak Ereñotzuko egunerokoa?

Beste lekuetan bezala hemen ere aldaketa nabaria da. Hasiara batean, aldaketa oso nabarmena izan zen, hainbat eremu itxi beharra sortu zen; jolas parkeak, frontoia, eskolako patioa, futbol zelaia, taberna... Itxialdi garaian, etxetik atera ezin hori, gogorra egin zen, orain, normaltasun berrirako bidean, kalean berriro harremantzen hasi gara esan daiteke.

Nola eraman du Ereñotzuk konfinamendua?

Esango nuke auzotarrek arduraz jokatu dutela itxialdi garaian. Batzuei, etxebizitza motagatik, eramangarriagoa egin zaie eta, beste batzuei, pisuetan bizi direnei eta umeak dauzkatenei adibidez, gogorragoa egin zaie.

Behin ateratzen hasteko baimena eman zutenean, Ereñotzun, Auzo Udala izatearen abantaila bat agerian geratu zen, ordu-tarteak bete beharrik ez izatearekin.

Ari da pixkanaka itzultzen 'normaltasunera'?

Bai, batzuentzat mantsoegi eta besteentzat azkarregi izan liteke normaltasun berrirako itzulera hau. Itxita egon diren hainbat eremu irekitzen hasiak gara, Auzo Udala astean bi egunetan arreta presentziala ematen ari da, bizilagunak elkarrekin harremantzen hasi gara berriro kalean...

Normaltasunaren adierazle izango da ere eguraldi ona den egunetan Urumea ibaiaren inguruetan pilatzen den jende eta zabor kopurua. Osasun krisialdi honen lehenengo asteetan, lasaitasun ederrean zeuden Urumea ibaiaren bazterrak eta, ikuspegi honetatik, errealitate gordina itzuli da.



Unai Erroitzena, Ereñotzuko Auzo Udaleko bulegoan.

«Normaltasunaren adierazle izango da ere, eguraldi ona den egunetan Urumea ibaiaren inguruetan pilatzen den jende eta zabor kopurua»

Udaletik, ze neurri hartu behar izan dituzue?

Hasiara batean, eremu ezberdinak itxeko erabakiak hartu behar izan ziren; Auzo Udalaren eraikina bera, jolas-parkeak, frontoia, futbol zelai inguru...

Ereñotzuko biztanleek bete beharreko ordutegiak zeintzuk ziren argitzen ere buru-hauste

dexente eman zigun.

Hernaniko udalarekin elkarlanean, espazio publikoko elementu ezberdinen garbiketan ahalegin berezia egin da.

Auzotarrei fase ezberdinen gaineko informazioa zabaltzea ere beharrezkoa izan da, nahasmena nagusitu baita momentu batzuetan.

Aurrekontuan eraginik izango du, gertatutako egoera honek?

Noski izango duela eta haundia gainera. Ereñotzuko urteko aurrekontuan %20-25eko diru sarrera txikiagoa izango da, zenbaitan, 80.000-100.000 eurotako eragina. Hori gutxi balitz, hainbat dirulaguntza deialdi bertan behera geratu dira, adibidez, landa-bideetara bideratutakoak; deialdi honetan 35.000 euro jasotzeko aukerak genituen.

Jaso duzue diru laguntza edo antzerako partidarik?

Ez eta jasotzeko esperantza handirik ere ez.

Orain arte, zer geratu da bertan behera, eta zer itzuli da 'normaltatera'?

Beste udalerrietan bezala, eskolako jarduera presentziala, ikastaroak, aisirako jarduera ezberdinak, Auzo Udalaren ohiko jarduera presentziala...

Normaltaterako bidean, datorren astetik aurrera Auzo Udala egunero irekitzen hasiko gara arreta presentziala emateko, legediak baimentzen duen heinean espazio publikoak irekitzen hasiak gara (frontoia kasu), auzoko bestelako jarduerak ere normaltaterako bidean dira, taberna adibidez, eta guzti horrek auzotarren arteko harremantzen eragin positiboa dauka.

Bertan behera gelditu den horrek, nola eragiten dio Ereñotzuri?

Bertan behera geratu diren jarduera horiek eragina daukate bai etxeetako kontziliazioan, bai eta bizilagunen arteko erlazioetan ere. Guzti horrek, auzoko bizitzan eragin kaltegarria dauka.

Zein da zuen asmoa datozen hilabeteetan, Auzo Udala gisa?

Lehenik eta behin, gure asmoa ohiko jarduera berreskuratzea izango da.

Udari begira, Olak auzo elkarrekin elkarlanean, kultur ekintzak berreskuratzeko asmoa dago. Alde batetik, besteak beste hain kaltetua izan den kultur arloari bultzadaxo bat emateko, eta bestetik auzoari ere, hainbeste denbora geldirik egon ondoren, berriro bizitza emateko helburuarekin.

Eta guzti honek, zenbaterainoko inpaktu ekonomikoa izan du Ereñotzun?

Esan liteke, Auzo Udalaren diru kontuetan 140.000 euro inguruko galera bat eragingo duela krisialdi honek 2020garren urtean. Ikusi beharko da hurrengo urteetarako zer nolako eragin ekonomikoa dakarren egoera honek.

Ez nuke ahaztu nahi norbanakoengan nahiz auzoko jantxe, sagardotegi, taberna eta enpresengan ere izango duela inpaktu ekonomikoa guzti honek.

Langabeziaren aldetik, eragin asko izan du?

Ereñotzun langabeziari dago-kionez izan duen eraginaren gaineko daturik ez daukagu, baina jakitun gara, auzotar askoren kasuan, enpresetan lan karga jeitsi dela, modu batera edo bestera lan orduak murrizten ari direla. Denbora bat beharko da benetan krisialdi honek izan duen eragina ikusteko.

Nolakoa da egungo egoera orduan?

Egunerokotasuna berreskuratzen gabiltza pixkanaka arlo guztietan, baina agerikoa da oraindik ere normaltatera heltzeko denbora luzea pasako dela. Ezjakintasun haundia dago krisi honek zer eragin utziko dituen, bai arlo ekonomikoan edo pertsonalean, eta nola jokatu beharko den... **K**

«Premia haundia» duten etxeko langileei laguntzeko, 'Erresistentzia Kutxa' martxan da

Azken hilabetetako pandemia dela eta, etxeko langile asko orandik eta egoera zaurgarriagoan geratu dira. Horregatik, 'Erresistentzia Kutxa' jarri dute abian Hernaniko etxeko langileek, AMHER, SOS Arrazakeria eta Mugimendu Feministarekin.

HERNANI BERDINTASUNA

Hain zuzen ere, osasun krisia dela eta, eta baita honek eragin dituen krisi sozial eta ekonomikoagatik ere, langile askoren egoera okertu egin da lurraldean.

Hernaniko etxeko langile gehienak lanik gabe geratu dira, eta hilabeteak daramazkete soldatarik gabe. «Ezagutzen ditugun etxeko langileen 27 emakumetatik, bost izanetik, gainontzeko 22ek arazoak izan dituzte: koronabirusa hasi zenean lanetik bota zituzten», dio Angela Joselín Cruzek, eta «horietako askok seme-alabak dituzte».

«Hernanin kontratua duen emakume baten kasua baino ez dut ezagutzen, baina paperak dituelako gertatzen da hori»



Kanpainaen egitekoa zein den kontatu digute Kattalin Artola, Hernaniko Koordinaora Feministako ordezkariak, eta Angelina Joselin Cruz, etxeko langileak.

Horregatik, Oarsoaldeako Oiartzun eta Errenteriako herrietan egin duten moduan, eta baita Tolosan ere, COVID-19aren ondorioz lanik gabe geratu diren emakume guztien beharrak ikusita, Hernaniko etxeko langileak harremanetan jarri zien mugimendu feministarekin batera, kanpaina hau martxan jartzeko.

«AMHER elkartearen bidez, etxeko langileak talde feministarekin harremanetan jarri ginen», dio Cruzek. «Oso babestuta sentitu gara Mugimendu Feministak eta AMHEREK emandako laguntzarekin. Beti daude gure zain: deitu eta nola gauden galdetzen digute». Gainera, gainontzeko herrietan ekimena aurrera eramanez hitz egin dute, «Hernaniko etxeko langileak lagundu nahi ditugulako».

Hori horrela, herriko hainbat komertzio eta tabernatan daude kutzak; hala nola, Kide tabernan, Lurreko dendan, Kale Nagusiko Aliproxen eta Gardanbera dendan.

«Dirua jasotzeko premia haundia duten emakumeak daude»

Gogorarazi du Artolak, garran-

tzisua dela «diru fisikoa eskue-tan izatea, emakume batzuek premia handia dutelako». Dio, «bestela ez dute diru sarrerarik izango ekaineko gelako errenta ordaintzeko».

Adierazi dute, diru bilketa-rako kutxez gain, badagoela aukera donazioa kontu korrontez egiteko, zenbaki honetan: 2095 5013 70 9114 1222 35. Kontzeptuan «etxeko langileen erresistentzia kutxa» jartzea gomendatu dute, ingreso egitean. Bestalde, esan dute kutzak ekainaren 30ean erretiratuko dituztela.

«Hilabete osorako 50 euroekin bizi behar dut» dio Cruzek

Azpitarratu dute 'Erresistentzia Kutxa' «emakume hauei zuzenduta» dagoela; hain zuzen ere, alokairua ekainean bertan ordaindu behar dutenei eta koronabirusagatik soldata gabe geratu direnei. Etxeko emakume langileen izenean hitz egin du Cruzek, eta esan du, «ema-

kume asko» daudela egoera horretan eta horregatik erabaki dutela kutzak Hernanin jartzea.

Mezu argia helarazi dute: «dirua ezer ez duten emakumeentzat da, baliabiderik ez dutenentzat eta instituzioetatik etorritako laguntza jasotzeko aukerarik ez dutenentzat».

Jakinarazi du harremanetan jarri direla Hernaniko etxeko langileekin, «egunero egin dizkiegu elkarrizketak eta galdetu diegu ea zer moduz dauden». Hala ere, tamalez, erantzuna txarra izan dela dio: «emakume asko gaizki daude; pandemia dela eta, lanik gabe geratu dira, kaleratu egin dituztelako». Salatu du, «beste batzuei lanaldia murriztu» dietela, eta «horietako askori ez dizkiete hainbat hilabeteko lana ordaindu», adierazi du.

Mugimendu feministak ez zuen zalantzarik izan, ekimenean esku-hartzeko «Kanpainaren funtsa zein zen aipatu zigitenean, ez genuen zalantzarik izan», aitortu du Artolak. «Behin baino gehiagotan egin dugu lan elkarrekin: martxoaren 8an edota azaroaren

25ean esaterako».

Gainera, «lan erraza» izan zen etxeko langileek proposatutako kanpaina aurrera eramatea, emakumeek hasieratik esan zitelako haien asmoa zein zen. «Modu birtualean egin genuen lehenengo bilera», esan dute. «Ikusgarritasuna eta indarra eman nahi diegu», adierazi du mugimendu feministako ordezkariak, «oinarrizko beharra» delako. Izan ere, emakume askok pairatzen dute kanpaina honek babestu nahi duen egoera «tamalgarria».

Begiak busti zaizkio Cruz, bere etorkizunaren inguruan galdetu diogunean. 26 urte ditu eta urtebete igaro da bere lurralde atzean utzi zuenetik. Hondurasetik Euskal Herrira iritsi zenean «ez nuen ezer ezagutzen eta guztia berria zen niretzat» eta dio, gainontzeko langileei ere berdina gertatu zaiela.

Gizarte eta osasun arloko ikasketak hasi zituen Cruzek, eta hauek bukatzea da bere helburua, «oso garrantzitsua» baita titulu hori, lana lortzeko. «Aurrera egin nahi dut, ikasturtea amaitu eta lanean jarraitu», esan du. Itxaropena islatu da

Cruzen begietan, kontakizun osoan zehar.

«Gizarteak, orokorrean, ez gaitu babestu»

Etxeko langileak diren emakumeak, gehienak atzeritarrak dira. Beraien herrialdea utzi behar izan dute, bertako egoera politiko, ekonomiko eta soziala oso eskasa delako. Emigratzeko beharra izan dute eta dena utzi dute atzean: familia, lagunak, etxea... Cruzen kasua da hori: «egoera oso gaizki dago Hondurasetan, eta duela urtebete iritsi nintzen Euskal Herrira».

Egun, etxeko langilea da. Hala ere, Cruz erizaina da ofizioz, eta dio, «eskuak lotuta dituela sentitzen dela hemen eta azaldu du, «sentimendu hau areagotu egin da koronabirusarekin». Gaixotutako pertsonen kopuruak gora egin zuen ahala, laguntzeko gogo haundia izan zuen.

Baina gobernuak ez du bere titulua onartzen eta konbalidazioak egitea oso zaila da. «Oso prozesu luzea eta konplexua da baliozkotzeena», baieztatu nahi izan du, Artolak.

Aitortu dute «kasu ezberdin

asko» daudela. Artolak azaldu du, «datu-base bat dago atzerriko herrialdeetatik etorri eta hemen lan egiten saiatzen diren emakume askorekin». Datu basu horretan egoteko, «Emakumeak SOS arrazakeriara joaten dira eta bertan erregistratzen dira».

Agenda politikoan «egon behar duen» gaia, etxeko langileena

Hala ere, bizi dugun osasun krisiak, krisi sozialak eta ekonomikoak Euskal Herriko elkarte eta talde askoren ekimenak geldiarazi ditu eta ohikoa denez, indar guztiak larrialdi sozialari erantzuteko birbideratu dituzte. Baina antolatzaileek eta 'Erresistentzia Kutxa'-ko protagonistek ez dute guzti hau anekdota huts batean geratzerik nahi. «Gai soziala izateaz gain, ardura politiko baten aurrean gaude, eta zalantzarik gabe agenda politikoan egon behar du», argi utzi du Koordinadora Feministako ordezkariak.

«Bildutako diruarekin, etxeko langileen emakumeek logela gutxienez hilabete honetan ordaindu ahal izatea nahi dugu»

Baina emakumeen egoera latz hau ez da koronabirusaren ondorioz sortu den zerbait. Alderantziz, pandemiagatik «areagotu» egin da, baina lehendik ere, «gaizki geunden». Cruzek esan du, azarorik ez duela lan egiteko aukerik izan eta horregatik, baliabide falta ere izan duela hilabete guzti hauetan. Noski, COVID-19ak zailtasun haundiagoak jarri dizkie.

Kasu asko ezagutzen ditu Cruzek, eta batekin gogoeta egin du: «Ezagutzen dut hirurogeita bi urte dituen andre bat. Papearak ditu eta alaba irakasle duen emakume batekin ari zen lanean, baina hau etxetik lanean ari denez, kaleratu egin zuten nire ezaguna, bestelako arrazoirik gabe». Azaldu nahi izan du, «horrekin esan nahi dut, papearak izan edo ez, emakume asko kaleratu dituztela konfinamenduan».

Jakinarazi du, Cruzek, etxeko langile gehienek ez dutela legearen arabera kontraturik. «Paperak ez ditugulako aprobetxatzen dira, kontraturik ez egiteko eta gutxiago ordaintzeko», dio. «Eta gauza bera gertatzen da etxebizitza edo logeletako errentarekin».

Artolak aitortu du «origin

gurrupila» dela hau: «ez daude inon erregistratuta eta horregatik, edozein erakundetan laguntza eskatzeko orduan, beti lortzen dute ezezkia». Berritoki azpimarratu du gai politikoa dela eta esku-hartzea eskatu du. «Araututa ez badaude, ez dute inoiz alokairu-kontraturik edo lan-kontraturik izango» eta beraz, ikusezinak izango dira, «erregistroan erregistratuta ez daudelako», hain zuzen.

Baina funtsa ez omen dago, zehazki, paperak izatearen kontuan. Izan ere, erregularizatuta dagoen eta paperak dituen emakume bat ezagutzen du Cruzek, eta honek ere arazoak izan ditu. «Nagusiak ordutegia murriztu zion eta ez zion martxoko soldata ordaindu», dio. «Eguneko 24 orduak ematen ditu gizon bat zaintzen, eta hilabetean 800 euro jasotzen ditu egindako lan guztiagatik».

Egoeraren aurrean, AMHER-eko kideekin jarri zen kontaktuan eta «prozesuan lagundu zioten», adierazi du. «Uste dut arazoari irtenbidea jarri ziotela».

Hala ere, egia da kaleraketa eta soldata murrizketa gehienagoak erregularizatuta ez dauden emakumeek pairatu dituztela. «Hor dago gakoa», azaldu du Koordinadora Feministako ordezkariak. Izan ere, lan-kontratu eta lo-tokiarekin kontratu izateko arazo gehienak izaten dituztenak dira, orokorrean, paperik ez duten emakumeak eta beraz, egoera irregularrean daudenak.

«Hartu edo utzi, zuk erabaki»

Hori bera da Cruzi esan ziotena, 400 euroko soldatako lana eskaini ziotenean. Baina hartu egin behar izan zuen, dio. «300 euro ordaintzen ditut bizi naizen gelagatik, eta guztira, gastuekin, 350 eurotara igotzen da ordaindu beharrekoa». Izan ere, adierazi du azarotik soldatarik gabe bizi behar izan duela, eta egoera gehiegi konplikatzen ari zitzatela, azken hilabeteetan.

Kalkuluek ez dute gehiagorako ematen, eta onartu du 50 euroekin egin behar duela hilabetea. «Jainkoari eskerrak, elikagaien bankua dago», esan du. Bertara joaten dira emakumeetako asko, hilabeteko beharrezko elikagaiak lortzera.

«Hemengoek nahi ez ditugun lanak egiten dituzte», salatu du Artolak, etxeko langileei erreferentzia eginez. Lanpostu duinak diren arren, orokorrean hitz eginda, garbitze lanak eta hirugarren adineko pertsonen beraien beharretan laguntzea da atzerriko etortzen diren emakumeei egokitzen zaien lana.

Besalde, etxeko langile gehie-



Hernaniko dendetan jarri dituzte erreistentzia kutxak.

nak logelatan bizi dira. Gainera, askok gela elkarbanatzen dute, beste pertsona batekin, gastuak ere erdibana egiteko, errenta «oso garestia» baita. «Logelatan bizi gara eta badakit herrian 8 edo 10 pertsona bizi direla hiru logelako etxebizitza batean», salatu du Cruzek.

«Ez dugu egoera hau ikusarazteko borroka hemen amaitzerik nahi. Hau ez COVID-19aren ondorioz eman den zerbait: lehendik ere esplotatuta zeuden langile hauek»

«Hau hemen gertatzen ari da, Hernanin». Honen inguruan, gehitu nahi izan du: «Gutaz aprobetxatzen dira gelaren errentarekin eta ez digute kontraturik egiten». Dio, etxeko jabeek diru laguntzak jasotzen dituztela gela alokatzeagatik, baina ez dietela kontraturik egiten emakume hauei. Izan ere, «kontratu eginez gero, laguntza galduko lukete».

Egoera zaurgarrienean dauden emakumeen datu base bat

Cruzek helarazi du laguntza jasotzeko eta emakumeak babestuago sentitzeko, AMHER-ek eta SOS Arrazakeriak datu base bat dutela. Hain zuzen ere, egoera zaurgarrienean dauden etxeko langileak edota kanpotik etorri-

tako emakumeak daude bertan.

Modu honetan, errazago da identifikatzea zeintzuk diren behar edo premia larrina dutena. Prozesua ere, azkarrago da datu guzti horiek eskura izanda. Honen inguruan, Artolak zehaztu du «datu-base bat dago atzerriko herrialdeetatik etorri eta hemen lan egiten saiatzen diren emakume askorekin». Esandakoa zehaztu nahi izan dute, «pertsona ahulengana iritsi nahi da, AMHER eta SOS Arrazakeriara jotzen dutenengana».

Horregatik, Cruzek eta Artolak jakinarazi dute talde hauek eta baita mugimendu feministak ere, laguntza eskainiko dietela pertsoa guzti horiei, ahal duten moduan eta ahalik eta azkarren. Horrela, babestuta sentituko direla. Baina horretarako, egoera latza bizi dutenek aurrerapausua eman behar dute eta haietara jo behar dute, laguntza eske: «entitateekin kontaktuan jarri eta beharra ikusten bada, zerrendan erregistratuko dira».

Erakunde eta talde ugari, ekimena bultzatzen

Esan bezala, 'Erresistentzia Kutxa' ez da soilik Hernanin egin den kanpaina. Alderantziz, atzean dira herrietako mugimendu feministak eta zaugarriak direnei babesa eskaintzen dietenak.

Talde guzti horien artean daude, hain zuzen ere: Feministas por Nicaragua-Euskal Herria Elkarte, Mujeres con Voz (Getxo) Elkarte, Mujeres Tejiendo Red Elkarte eta Trabajadoras No Domesticadas. Bestalde, Laguntzaileak dira: Fondo de Mujeres Calala, Pikara Magazine eta Sortzen Kontsultoria.

Kasu honetan, Hernaniko etxeko langileen taldeak ideia «imitatu» nahi izan dute, AMHER, SOS Arrazakeria eta mugimendu feministarekin batera, eta herritarrei deialdia egin diete, laguntza eske. Izan ere, diote, herrian behar hori duten emakume asko daudela egoera horretan. Eta laguntza «ahal bezain pronto» eskaini behar dietela adierazi du Cruzek. Izan ere, horiek dira hilabete honetan lo-lekua ordaintzeko dirurik ez dutenak. **K**

BAR - RESTAURANTE
Justo
TELÉFONO: 943 50 99 64
HERNANI

CAFE
Juxto
BAR

JUXTO TABERNAREN 50.URTEURRENA

Eskerrik asko bezero guztiei urte guzti hauetan erakutsiriko leialtasunarengatik.

943 50 99 64 • Txirrita kalea 15, Hernani

Enpresarean Azoka urriaren 22an antolatuko da aurten Orona Ideon

Garapen Iraunkorreko Helburuen aplikazioa euskal enpresa-sarean izango da landuko den gaia, hizkuntza aniztasuna kontuan hartuta.

HERNANI BAI EUSKARARI

2020ko Enpresarean Azoka urriaren 22an egingo da Orona-Ideon (Hernani) eta aurtengo gaia *Garapen Iraunkorrerako Helburuen aplikazioa euskal enpresa-sarean. Eta hizkuntza aniztasuna?* izango da. Enpresarean Azoka bi urtez behin antolatzen du Bai Euskarari Elkar-teak eta aurtengoa bosgarren edizioa izango da. Ez dakite Covid-19ak nola eragingo duen ekitaldian, baina badaezpada prest dituzte A, B, C eta D planak.

Gai aintzat hartuta, hiru zutabe izango ditu jardunaldiak: Jasangarritasuna; Hizkuntza; eta Inklusibitatea eta hazkunde

ekonomikoa.

Ohi bezala, hitzaldiak, solasaldiak, adibide praktikoak eta ekintzaileentzako tartea izango da.

Eta hizkuntza aniztasuna? Bai Euskarari Elkar-teak kudeatzen duen Euskaragileak enpresa batzordeak egindako proposamen batetik sortu da aurtengo gaia. Enpresa hauen iritziz administrazioak eta enpresak Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) lantzen hasi dira, Nazio Batuen Erakundeak abian duen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren baitan. Marko horrek 17 helburu definitu ditu, mundua hobetzeko, baina hizkuntza aniztasuna ez da

modu esplizituan aipatzen. Hala ere, hor dago nolabait...

«Gure ustez, berezko lekua eskaini beharko litzaioke hizkuntzari Garapen Iraunkorrerako Helburuen artean eta olatua baliatu beharko genuke lanke-ta eta proposamen bat egiteko, erantzukizun linguistikoa enpresen gizarte-erantzukizunaren parte baita» diote Bai Euskarari Elkar-teko antolatzaileek

Izen-ematea, irailean egin beharko da ta orain hizlari eta parte-hartzaile guztiak lotzen ari dira. Irailean ere zabalduko dituzte ekitaldiaren egitaraua eta izen-emateko formularioa.

Enpresarean Azoka Bai Euskarari Elkar-teak sustaturiko Enpresarean egitasmoaren ardatz bat da. Horren helburua da euskara oinarri duen elkarlana, negozio aukera berriak eta komunitatea sustatzea. **K**

Aiotzategi 4-ko alokairu sozialeko etxeen, behin-behineko zerrenda argitaratu da

ASTIGARRAGA GAIA

Aiotzategi kaleko 4 zenbakian dauden alokairu sozialeko 7 etxebizitzetarako eskaera guztiak aztertu ondoren, behin-behineko zerrenda argitaratu da. Izena eman duten guztiei Udalak gutun bat helearazi die. Eskaera bakoitzari zenbaki bat esleitu zaio, eta gutunaren bidez jakinaraziko zaio eskatzaileari zein den bere zenbakia. Zenbaki hori zerrendan kontsultatuz jakingo du eskatzaileak zein den bere eskaeraren egoera; hau da, onartua edo baztertua izan den, onartua izan bada zein kupotan sartuko den, eta baztertua izan bada zein izan den baztertzeko arrazoia. Erreklamazio epea irekita dago, beharrezkoa jotzen dutenek idazki bat aurkeztu dezakete Erregistroko bulegoetan, beharrezkotzat jotzen diren frogagiri guztiekin batera.

Ostegunerako begira sarearen 13garren bilera antolatu du Emakundek zoom bidez

URUMEA BERDINTASUNA

Begira Sarearen 13garren bilera aurten birtualki zoom bidez eramango da aurrera, ostegunean, ekainaren 18an, Emakundek antolatuta. Jardunaldia 10:30etan hasiko da eta 2020rako lan plangintzaren aurkezpena egingo dute Itziar Cámara eta Ángel Rodríguez. 11:00etan *Sexu-indarkeria: non jarri arreta?* hitzaldia eskainiko du Norma Vázquez eta 11:40etan *Komunikabideekin lan egiteko espazioaz* ariko dira. Jardunaldia eguerdiko 12:00etan iritsiko da amaierara.

Posta bidez botoa emateko bideak zabaldu dituzte alderdi politikoek

Uztailaren 12an egingo dira hauteskundeak Eusko Legebiltzarrerako eta uztailaren 2ra arte eman eta eskatu daiteke botoa postaz.

HERNANI HAUTESKUNDEAK

Uztailaren 12an egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak direla eta, posta bidez bozka eman nahi duten herna-niarrek badute aukera dagoeneko. Hernaniko EH Bildu, EAJ-PNV eta PSE-EEK informazio guneak eta tramitea martxan jartzeko bideak zabaldu dituzte.

Honela, interesatuek informazioa jaso dezakete Hernaniko EH Bilduk Andre Kanean duen egoitzan. Zalantzak argitu nahi dituenak Bilgunea zabalik izango du ondorengo egunetan:

uztailaren 2ra bitartean: astearte eta ostegunetan (10:00-12:00 eta 18:00-20:00). Ostiraletan: 18:00etatik 20:00etara.

Koronabirusak eragin du hauteskundean udaran, uztailaren 12an izatea, eta Hernaniko alderdi sozialistaren kideek Herriko Etxea zabaldu dute posta bidezko botoa izapidetzeko laguntza-zerbitzua, hauteskunde mahaietara joan ezin dutenentzat botoa ematera.

Maiatzaren amaieran hasi zuten tramitea egiteko bidea eta uztailaren 2ra arte, PSE-EE-ren egoitzan (Laiztiaga Auzoa,

8) egunero erantzungo da, as-telehenetik ostiralera. Ostiraletan, 11:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara egin daiteke. Gainera, ezintasunen bat duten edo gaixo dauden pertsonen honako aukera hau dute: Etxetik bozkatu notarioaren aurrean, eta tramitazio hori ere egin dezake alderdi sozialistak egoitzan.

Kontsulta guztiei telefonoz-zenbaki honetan ere erantzungo zaie: 94355 04 29.

EAJ-PNVren aldetik laguntzeko prest izango dira kontsultarako 900 840 384 doako telefonoan. Bertan bakoitzak aukeratu dezake boto-modalitatea eta botoa eskatzeko eta bidaltzeko daten eta epeen berri emango dete bozkatzaileei. **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



AMAYA IRAZUSTA OCARIZ

Adiskide onekin, arduak labor.
Elkarrekin amesten jarrai dezagun, lagun.

**ROSI, MAICAR, IXIAR, BELEN,
ARANTXA ETA ANA**



Hernanin, 2020ko ekainaren 13an

Beti egongo zara gure artean
Etxekoak

VII. URTEURRENA
Marcelino Tolosa Goikoetxea
1925-6-17 * 2013-6-13

**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

* Beilatokiak

* Errausketak

* Lekualdatzeak

* Eskelak, koroak...



Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Euskal Sagardoa jatorri-deiturak 2019ko uztako sagardoa botilan aurkeztu du Chillida Lekun

Euskal Sagardoa jatorri-deiturak uztako sagardoa botilan aurkeztu du, eta 48 sagardotegiren 60 botila aurkeztu dituzte.

URUMEA SAGARDOA

Euskal Sagardoko kide diren Gipuzkoako, Bizkaiako eta Arabako sagardogileen produktua ezagutzeko eta dastatzeko aukera izan zen, Chillida Lekun egindako aurkezpenean. Aurkeztutako 60 botilak, «%100 bertako sagarraz eginak eta kalitate-bermea dutenak» dira, adierazi dute.

Euskal Sagardoaren koordinatzaile den Unai Agirrerekin batera, sagardo munduarekin lotura eta interesa duten beste hainbestek hartu zuten hitza, prentsaurrekoan. Horien artean, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordeak, sagardogilea eta Euskal Sagardoa jatorri-deiturako lehendakariak eta lehendakari ordeak, eta zuzendaritzako zenbait kideek. Sagardoa Routedo koordinatzaileak ere hitza hartu zuen, aurkezpenean. Gainera, bertan izan ziren Hernaniko alkatea den Xabier Lertxundi eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko zuzendaria.

«Uzta haundia izan da, kopuruan, 2019koa»

Aurkeztutako sagardo guztiak, 250 sagargileren sagarrekin



Chillida Leku museoan egin zen 2019ko uztako sagardo botilaren aurkezpena.

eginak izan dira. Gainera, uzta haundia izan dela azpimarratu dute; 3,2 milioi litro Euskal Sagardo ekoiztu dira 5,5 milioi kilo sagarrekin. «Sagardo lurrintsu eta orekatuak lortu dira, aurreko uztakoekin alderatuta», esan dute. Ahoan «arinagoak» dira, eta «alkohol graduazio baxuagokoak, orokorrean».

Hala ere, argi utzi dute sagardotegi eta sagardo bakoitza «mundu bat» dela, bakoitzak bere ezaugarriak eta gustu pertsonalak dituelako. Horretarako, Mikel Garaizabal sommelierak gidatuta, bertaratutako guztiak sagardoa probatzeko aukera izan zuten. Horrez gain, berrikuntza gisa Euskal Sagardoa-

ren lehen katalogoa aurkeztu zuten, sagardotegi bakoitzaren informazioa eta sagardo bakoitzaren ezaugarriak jasotzen dituenak. Euskal Sagardo guztiak biltzen dira bertan, xehetasunez, eta gainerako oinarriko informazioa ere bai. «Katalogo bizia» da, diote, «urtez urte eta uztaz uzta aldatzen joango dena». Online dago eskuragarri ondorengo helbidean: <https://euskalsagardoa.eus/katalogoa/>. Modu honetan, errazagoa izango da sagardogile bakoitzaren perfila zein den ezagutzea.

Ibilbide luzea, Euskal Sagardoarena

2016ko uztarekin sortu zen eta

urte guzti hauetan «ibilbide luzea» egin du, «bai sagastien eta produktuaren kalitateari begira eta baita merkaturatzeari begira ere». Lehen urteetan «distribuzio antolatuan» posizionatzeko lanak eman zituen fruituak, eta gaur egun buru belarri ari da lanean HORECA kanalean posizio ona lortzeko.

Diote, horri begira egin dela 2020ko plangintza eta, «etorri denak urteko promozioa apur bat geldiarazi badu ere», lanari berriz ere ekin diotela azpimarratu dute. Gainera, dibertsifikazioan ere lan haundia egiten ari da sektorea: «Euskal Sagardo gamak, formatu berriak eta Euskal Sagardotik abiatutako produktu

berriak bultzatuz».

Sagastietan ere enfasia ipintzen ari dira, «sagardotegietako lan guztia sagastietan hasten baita». Adierazi dute, «kalitatezko lehengaiak» ematen duela «kalitatezko produktua egiteko aukera». Jatorri-deitura «urte-tako lanaren emaitza eta etorkizuneko apustua» dela nabarmendu dute sustatzaileek. Elkar lanean aritzen dira gaur egun proiektua aurrera eramatea erabaki zutenek; erakunde publikoek eta sagar eta sagardo sektoreak. Euskal Sagardoa zigilua daramaten sagardoek bi ezaugarri nagusi dituzte: %100 bertako sagarrarekin eginak dira eta kalitate-bermea dute. **K**

Udaran Gaztelekuak aukera berdintasuna bermatuko du surfarekin, piraguismoarekin eta aerorumbarekin

Segurtasun neurriak beteko dira eta errutinatik ateratzea da beste helburuetako bat. Ekintza bakoitzerako hamabi plaza egongo dira.

HERNANI GAZTELEKUA

Hernaniko Gaztelekuko hezitzaileek, urtero bezala, uztailan zehar egingo dituzten ekintzak prest dituzte. Martxoaren erdialdetik aurrera, COVID-19a dela eta, zerbitzuaren formatua aldatu eta online egon behar izan dute. Ekainean, pixkanaka ekintza batzuk Gazteleku inguru-

ruan egiten hasi dira, segurtasun neurriekin eta aforo mugatuarekin.

Udarari begira, ezinbestekoa iruditzen zaie herriko gazteentzako (12-17 urte) eskaintza egitea, esan bezala, egoera honetara moldatutako segurtasun neurri bereziekin. Badakite hilabete hauek ez direla batera errazak izan eta familia as-

koren egoera ekonomikoa ere aldatu egin dela. Hori dela eta, aukera berdintasuna bermatu eta errutinatik ateratzeko zenbait ekintza proposamen egiten dituzte Gaztelekitik, ekainaren 29tik (astelehena) uztailaren 24ra bitarte (ostirala): Aerorumba, Surf ikastaroa, Piraguismo ikastaroa, afari-merienda, ginkana, zirku tailerra...

Ez da dirurik ordainduko, baina konpromezua eta izenematea eskatuko dira

Ekintzetan parte-hartzeko,

gazteek ez dute dirurik ordaindu behar baina beharrezkoa izango da aldeztu aurretik izen ematea eta konpromezua edukitzea. Aurten beste urteetan baina plaza gutxiago izango ditugu ekintza bakoitzerako (12) eta kopuru hori baino gazte gehiago apuntatzen bada, zozketa egingo dute. Izen ematea asteke egingo da, online (Google Forms-eko galdetegi baten bidez). Bertan ekintza bakoitzaren ordutegia zehaztuta dago eta informazio gehiago eskainiko dute, behin apuntatu eta


plaza egokitzen denean. Plaza konfirmatzearekin batera, zenbait fitxa irakurri, sinatu eta ekintza baino lehen Hernaniko Gaztelekuari helarazi behar zaizkio (izen emate orria, bakarrik itzultzeko baimena eta baimen berezia COVID-19 dela eta). Hauekin batera, Gaztelekuko segurtasun protokoloa ere bidaliko zaie. Izenemateko aukera aste honetan jarri dugu martxan eta ondorengo linkaren bidez egin dezakezue edo QR kode honen bidez: <https://linktr.ee/hgaztelekua>. **K**

URUMEA BAILARAKO KOMERTZIOEN GIDA

IREKITA DAUDEN KOMERTZIOAK



TXINTXUA TABERNA



Zikuñaga
bailara 76,
HERNANI
943 552
199 / 686
597 893

ORDUTEGIA Astelehenetik
larunbatera, terraza zabala.

ESKAINTZAK

Gosariak eta hamaietakoak,
menua, karta, plater
konbinatuak, bokatak.

IRUBIDE JATETXEA



HELBIDEA
Epele auzoa 7,
HERNANI

TELEFONOA
943 55 24 80
667 208 702

IRRINTZI TABERNA



Ereñotzu bailara, 3
656 37 42 58

Berriro Martxan!

BI HERRIAK



Akarregi poligonoa 1, HERNANI
943 33 20 31

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 6:30 - 23:00
Larunbatak: 9:00 - 23:30
Igandeak: 9:00 - 16:30

ESKAINTZAK

Eguneko menua eskaintzen dugu aste eguneko bazkarietan eta gauetan karta (razioak, entsaladak, hanburgesak, ogitartekoak eta plater konbinatuak). Eskaera guztia etxera eramateko eta bertan gozatzeko aukera ere eskaintzen dugu.

TXOKO TABERNA



Andre Kale 68
HERNANI
943 50 62 23

ORDUTEGIA

Astelehenetik

ostegunera: 7:00-22:00

Ostirala: 7:00-23:00

Larunbata: 8:00-23:00

Igandeak eta jai egunak: Itxita

Etxera eramateko tortila tamaina
berriak ditugu, deitu eta galdetu.

ILARGI TABERNA



Latxunbe berri
36 behea
HERNANI
602 66 50 58

ORDUTEGIA

Astelehena 9:00-23:00

Aste bukaeran: 10:00-1:00

ESKAINTZAK

Pintxo potea ostegunetan:

19:00-21:00.

Paellak igandetan: 13:00-15:00.

TRANBIA TABERNA



Marieluts 2,
HERNANI
943 335 819

ORDUTEGIA

Asteartetik ostiralera 9:00-23:30
Larunbata-igandea 10:30-24:00

Ohiko kartarekin, tabernan jateko
eta etxera eramateko aukera
dago. Karta web orrialdean ikusi
daiteke: www.bartranbia.com.

LAKET TABERNA



Erribera plaza
(DIAre ondoan)
ASTIGARRAGA

Telefona: 943 46 20 04

Giro atsegina eta terraza handia, gustora egoteko eta umeentzako parkea ondoan, mugitu gabe, haurrak zaindu ahal izateko.

JATEKOAK

Etxeko jana, bertan egina; hanburgesak, bokatak, oilasko errea, razioak... Dena bertan jateko edo eramateko, zure aukeran.

Zure zain gaudel!

EKAITZ TABERNA



943 45 93 71
Tomas Alba, 9
ASTIGARRAGA

ORDUTEGIA

11:00 - 00:00

ESKAINTZAK

Eguneko menua (astelehena zehar), plater konbinatuak, razio eskaintza zabala (zanburinak, muskuiluak tomate pikantearekin, tripakiak, karrilerak, barraskiloak...), hanburgesak, hanburgesa begetala, sartagiak, entsaladak, bokatak eta etxeko pizzak.

Sukaldeko ordutegia, 12:30 - 15:30 / 19:30 - 22:30

EUSKALDUNA TABERNA

Nafar kalea 23
HERNANI
679 72 67 20

ORDUTEGIA

9:30 - 23:00

MARTXAN GAUDE!

ISABEL JANARI DENDA

Tomas Alba 11,
Astigarraga

Arratsaldez
itxita.

Zerbait behar
baduzu:

isamendioroz@
gmail.com
943 55 23 67

TXINGURRI JATETXEA



ESKAINTZAK

Plater konbinatuak eta razioak,
entsaladak, ogitartekoak,
hanburgesak eta sandwichak.

Astelehenetik-Larunbat eguerdira:
Eguneko menua.

Larunbatak, Igandeak eta
jaiegunak: Oilasko erreta patata
eta letxugarekin.

Bertan jateko baita eramateko
ere.

Donostia ibilbidea 90,
ASTIGARRAGA
943 33 60 49

GUERE K2A



Zubiondo poligonoa B2-2, Rugby zelaitik gertu.
HERNANI
943 53 51 36

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera 6:30 - 16:00
Larunbatak 10:00 - 16:00

ESKAINTZAK

Eguneko menua astelehenetik larunbatera 11,30€ bez barne, pintxo eta bokata edo plater konbinatuak ere baditugu eta sukaldea irekia, irekitzen dugunetik itxi arte. Eramateko dena prestatu dezakegu eta oilasko errea ere badugu eramateko 9,90€ tan bez barne. Aldez aurretik eskatzea hobe izaten da. Eskariak egiteko telefonoa 943 53 51 36 (whatsappez).

BIDE ARIN



Txirrita 13,
Hernani
943 33 21 70

ORDUTEGIA

Astl.-ostiralera
16:30-20:30
Larunbatetan
10:00-13:30

Egoera hau
dendan al-
daketa txiki
batzuk egiteko
erabili dugu.
Deskontuak
badauzkagu
eta material
berria.

IRAOLA HORTZ KLINIKA

Iraola

Hortz klinika

Helbidea:
Andrekale Kalea 50 - 1D

Telefonoa:
943 55 44 55

ORDUTEGIA

10:00-14:00

Ekainaren 1etik aurrera 10:00 - 18:00, astelehenetik ostiralera.

ASTIGARRAGA HORTZ KLINIKA



Pelotari kalea 17,
Astigarraga

Telefonoa
943 33 00 89
📞 688 68 68 17

ORDUTEGIA

Astelehenetik asteazkenara 14:30-20:30 / ostegun-ostirala 8:30-14:30

ODONTOLOGIA OROKORRA / HAURRENTZAKO PADI ZERBITZUA

AMETSA ILEAPAINDEGIA

ametsa
ileapaindegia

Antziola
13 behea,
Hernani

943 33 68 49 / 603 413 083

ORDUTEGIA

Astelehenetik-ostiralera: 9:00-19:00. Larunbatak: 8:00-14:00

ESKAITZAK

Familiako guztiontzako, koloreak, kolore beganoak, metxak, (balayage, kaliforniana...), keratina (85€). Maskarilla beharrezkoa.

ADATS ILEAPAINDEGIA



Nafar kalea 14, Hernani

Egoera berri hau dela eta, lan egiteko genuen modua erabat aldatu beharko dugu.

Hemendik aurrera, ileapaindegira etortzeko txandak, hitzordu bidez antolatuko ditugu.

Horretarako, bi telefono ditugu: WhatsApp 📞: 688 849 059

Ilepaindegiko telefono fijoia 943 33 24 41

BIOK ILEAPAINDEGIA

ILEAPAINDEGIA
BIOK
Jone eta Ana

Elkano kalea, 18
943 333 032 / 📞 688 660 415

Norbanakoari egokitutako lanak, azkartasuna eta erabateko garbitasuna.

Mozketa eta moldeatu lanez gain,

aukeran dituzu:

- 10 minutuko kolorea
- Betiko kolorea: teknika desberdinak
- Kolore organikoa
- Kolore bainua

ORDUTEGIA:

* Astelehenetik asteazkenara 08:30-12:30 eta 15:00-19:00.

* Ostegun eta ostiraletan 08:30-18:00.

* Larunbatetan 08:30-13:00.

KIMU ILEAPAINDEGI MIXTOA

Izpizua kalea 1 Gogoratu
Hernani joan aurretik
943 55 15 44 hitzordua
hartzea.

SARAH GIZONEZKO ILEAPAINDEGIA

Larramendi 1 **ORDUTEGIA**
behea, Hernani. 9:30-13:00
17:00-20:00
Telefonoa
667 557 630

KRISTINA-ANABEL
ILEAPAINDEGIA-ESTETIKA

Elkano 18,
Hernani
943 556
751 /

📞 664 336 982

Zure irudia aldatzen laguntzen zaitugu. Ile mozketa pertsonalizatuak. Depilazioak, manikurak, pedikurak, makillajeak, aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak, erradiofrequentzia, vacuum, lipolaser, solariuma. Hartu hitzordua.

LIZEAGA SAGARDOTEGIA



www.lizeaga.eus
943 46 82 90

ESKAITZA
DAGOENKO ZABALIK,
EGIZU ZURE ERRESERBA.



IKUSI-MAKUSI JOSTAILUAK OPARI DENDA



Kale nagusia 7

Telefonoa 843 630 469
📞 634 607 099

📷 📱 Ikusi Makusi Hernani

ORDUTEGIA

- * Goizez, 10.00-13.00
- * Arratsalde, 17.00-19.30
- * Larunbata, 10.00-13.30

TALLERES JUANTXO



Andrekale 60 (Atzietas), HERNANI
943 25 66 08
tallerjuantxo@gmail.com

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera 9:00-13:00 / 15:00-19:00.
Larunbatetan 10:00-13:00

Diagnosi unibertsala.
Neumatikoetan aukera zabala.
Aire girotuaren karga eta konponketa.
Suspentsioak, balazatak.
Olio aldaketak. Mekanika orokorra.

DAGO MOTOR



Akarregi 2B,
Hernani
943 33 06 65

ORDUTEGIA

8:30 - 19:00
Ozono makina bati esker zure

kotxea guztiz desinfectatuta jasoko duzu.

4 urte ireki genuenetik! Mila esker bezero guztiei.

**ETXERA
ERAMATEN
DUTENAK**



GOIKO LASTOLA SAGARDOTEGIA



Ereñotzu auzoa, Hernani
620 783 529

ESKAITZA

Etxera ere eramaten dugu sagardoa.

OTSAIHEN



ESKAITZA

24 botilako kaxak: 50€

Nahieran egin ditzakezu kaxako nahasketak: Horia, IPA eta beltza
Bidalketak etxera, Gipuzkoa osoan

Eskaerak egiteko: otsaihen@gmail.com 623 229 297



**Zure komertzioa
iragarri nahi baduzu,
jarri harremanetan:**

> publi@kronika.eus
> 688 660 714

Hamaika pasadizo kontatu dizkigute, pandemia garaia Erasmusean bizi dutenek

Kronabirusak bete-bete harrapatu ditu unibertsitate zein Hernaniko Gizarte Berrikuntzako zenbait ikasle, atzerrian. Batzuek etxera bueltatzeko erabakia hartu dute, baina beste batzuk erbestean geratu dira, esperientzia gogotsu bizitzeko.

HERNANI ERASMUS

Urtero izan ohi den moduan, unibertsitate zein Gizarte Berri-

kuntzako ikasleek aukera izaten dute atzerrira joan eta bertan ikasketak egin edota enpresetan praktikak burutzeko. Aurtengo

pandemiak, ordea, kanpoan bizi edo ikasten duten milaka pertsona etxera bueltatzea behartu ditu. Hala ere, herrialde eta

kultura ezberdinak ezagutu eta harreman berriak sortzeko aukera ezinhobe da atzerrira joatea. Horregatik, konfinatuta ba-

zen ere, bertan geratzea erabaki dute, batzuek: «Aurten bereziki ahaztezina bilakatu zaie esperientzia».

«Bagenekien zentzuz jokatu genuela eta emandako osasun gomendioak jarraituko genituela», adierazi dute

Maialen Maiza eta Nerea Iraolak Ozeano Atlantikoa zeharkatu zuten unibertsitateko ikasketak eta praktikak erbestean egiteko. Hala ere, pandemiagatik ikasketen programazioa eta bidaiatzeko zituzten plan guztiak aldatu zaizkie.

NEREA IRAOLA ETA MAIALEN MAIZA

Erizaintzako ikasketak burutzen ditu Maizak, eta Gizarte Hezkuntzako ikaslea da Iraola. Erdialdeko Amerikara joan ziren biak urtarrilan, hirugarren mailako azken seihilekoa bertan egitera. Baina bertara iritsi eta bi hilabetera espero ez zutena gertatu zen, pandemia batek bete-bete hartu bait zuten etxetik kanpo. «Lehenengo kasua martxoak 13an iritsi zen eta hasieran ez genuen serio hartu, baina egunetik egunera kasuak areagotu egin ziren eta ikasleak etxera bueltatzen hasi ziren», dio Iraolak.

Egoeraren aurrean, unibertsitateak babesa adierazi die

Alarma egoera dekretatu zenean Euskal Herriko Unibertsitatea eta bertako zentrua haiekin jarri zen kontaktuan, eta bi aukera eskaini zizkieten: etxera bueltatu edo bertan geratu. «Hemen geratzea aukeratzen bagenuen eta ezbeharren bat gertatuz gero, gure ardurapean egongo zen guztia», dio Iraolak. Azkenean, etxekoekin hitz egin ostean, atzerrian geratzea erabaki zuten biek. «Kaosa izan zen; jendea etxera joaten hasi zen eta nik ere bueltatzea plan-



Guadalajarako hirian dago Maialen Maiza, eta udazken aldera bueltatuko da.

teatu nuen», onartu du Maizak. Hala ere, gehitu du: «baina pentsatu nuen: zertarako? Euskal Herrian egoera ere okertzen ari zen, orduan. Buelatu den jendearekin hitz egin dugu, eta damutu egin dira guztiak».

«Lagunek inolaz ere ez bueltatzeko esan zidaten»

Parrez gogoratu du Maizak etxekoek eta lagunek esandakoa, bueltatu edo geratzeko erabakia hartzeko haiekin hitz egin zutenean. «Amak bueltatzeko esan zidan, eta aitak ordea, zalan-tzarik gabe hemen geratzeko», aitortu du, irrifar batekin.

Bere aldetik, Iraola ere ez da damutu hartutako erabakiarekin: «asko ikasi dut». Dio, «kultura ezberdineko jende asko» ezagutu duela, Honduras eta Salvadorrekoak, batez ere. Emozio artean gogoeta egin du, Iraolak: «merkatura joaten gara barazkiak erostea, eta miserian bizi diren arren, hemengoek erakusten duten poztasuna izugarria da».

«Goitik behera aldatu zaizkigu planak»

Mexikora iristean, Maizak bi praktikaldi egin behar zituen Guadalajarako ospitaleetako batean. Pandemiagatik, ordea, bakarra egiteko aukera izan du: «hemengo ospitaleen funtzionamendua ezagutu nahi nuen eta behintzat hori egitea lortu nuen, pandemia hasi aurretik», helarazi du, ilusioz: «honekin geratuko naiz». Gainera, klaseak etxetik egin behar izan dituzte biek: «pandemia hasi zenean online hasi genituen klaseak. Askok lagundu digute unibertsitatean eta ikasketekin jarraitzeko aukera izan dugu».

Bidaiatzeko planak ere aldatu zaizkie, bie. «Kolonbiara joatea zen nere asmoa. Hala ere, orain ezinezkoa suertatu zaigu. Zorte izanez gero Maialenekin elkartzeko naiz, Mexikon», dio Gizarte Hezkuntzako ikasleak. Hala ere, Maizak argi utzi du Hego Amerika ezagutzeko gogoeta duela: «asmoa da etxera abuztu bukaeran edo irailan buelta-



Guatemalako Hiria aukeratu zuen Nerea Iraolak, erasmusa egiteko.

tzea». Hain zuzen ere, «ekaina hasiera arte Mexiko ezagutzen geratzeko asmoa nuen, gero Bolivia, Peru eta Kolonbiara joateko», adierazi du. Iraolak ere, plangintza birusaren arabera moldatuko du: «ez dakit noiz bueltatuko naizen. Uztailean bueltatuz gero, amorrua eman-go dit orduantxe bertan irekitzen badute bidaiatzeko eta turismo planak egiteko aukera».

Apenas arauik ez, konfinamendu garaian

Etxera ez bueltatzeko arrazoietako bat izan zen, Guatemalan eta Mexikon, gobernuak ez zuten konfinamendurako arau zorrotzik jarri. Arauen aldetik bi aste «zorrotz» izan bazituen ere, Iraolak dio «egunero ateratzen gara kalera». Guatemalan ere deseskalada faseak egitea pentsatzen ari dira, nahiz eta oraindik «arratsaldeko 18:00etatik goizeko 05:00etara» etxean geratzeko agindua duten.

Mexikon, ordea, ez da ia arauik ezarri. Maizaren esanetan, «jarri diguten arau ba-

karra maskarilla jartzea da». Hala ere, hildako kopuruari erreferentzia eginez, adierazi du: «hemen ez dakigu egia esan diguten, narkoek jende asko hiltzen dute eta uste dugu egia ezkututzen ari direla». Gainera, osasun sistema garestia denez, «gaixotzen den jendea ez da ospitalera joaten, etxera joaten da eta horregatik, erregistratutako datuak ez dira errealak», gehitu du.

Eusko Jaurlaritzaren kezka, Hego Amerikako lurralde batzuen egoeraren aurrean

Eusko Jaurlaritzak egindako komunikatu batean kezka adierazi du, eta horrekin batera, salatu du Kolonbian, Mexikon, El Salvadorren, Hondurasen eta Guatemalan giza eskubideen urraketak areagotu egin direla krisia hasi zenetik. Izan ere, «konfinamendu-egoerak, herrialde hauetan komunitate askok aurretik bizi zuten krisialdi humanitarioa larritu besterik ez baitu egin, lider sozialen zaugarritasuna areagotuz».

«Oso interesgarria izan da lana zein modutan egiten duten ezagutzea»

Mantentze-Lan Ekektromekaniko praktikak Suedian egitera erabaki zuen Vergarak, baina pandemiak bertan harrapatu zuen.



Gizarte Berrikuntzako ikasleak etxera bueltatzea erabaki zuen, pandemia egoera zela eta.

JON VERGARA

Bestelakoa izan da Mantentze-Lan Elektromekanikako ikaslearen esperientzia, Suedian. «Elonroad izeneko startup txiki batean egon nintzen praktikak egiten, kotxe elektrikoak kargatzeko errailak egiten dituzte». Martxoan Suedian koronabirusaren eragina larria izan ez bazen ere eta konfinamendurik egon ez zen arren, Euskal Herrian egoera «gogortzen» ari zela nabaritu zuen Vergarak eta etxera bueltatzea erabaki zuen.

Hala ere, Vergarak dio esperientzia positiboa izan dela guztiz, «oso interesgarria izan da haiek nola lan egiten duten ikustea eta haien kultura gozatzea». Penaz gogoratu du «hilabete besterik ez» egon izana.

Horregatik, beste ikasleak atzerrira joatea animatu ditu: «Erasmus programa egitea gomendatuko nieke gazteei, batez ere Erdi Mailan daudenei eta gero Goi Maila egiteko asmoa dutenei; Erdi Mailan Erasmus eginda eta Goi Mailan programa duala, Heziketa Zikloak erabat aprobetxatzeko modua da».

Larrialdi egoerak eta pandemiak, or-

dea, ez du Vergararen ikasketetan traba handirik jarri. Hain zuzen ere, Euskal Herrira itzuli eta praktikak bukatzeko lan osagarria egiteko aukera izan du. Gizarte Berrikuntzako arduradunek ikasleen onurarako egin dute lan, eta adierazi dute, «zailtasun guztiak gorabehera», ikasle guztiak lortu dutela aurreikusitako garaian ikasketak bukatzea: «pozik gaude, uda usaina lagun, etorkizunerako planak prestatzen».

Vergara Euskal Herrira bueltatu eta hilabete batzuk beranduago, egoera zertxobait okertu da Suedian. Hain zuzen ere, hildako eta kontagiatuen zifra areagotu egin da. Egun, 4500 hildako inguru izan dira eta herrialdeak gertuko bizilagunek baino heriotza-tasa handiagoa izan du.

Horregatik, Europako zenbait lurraldeen modura, herritarrek debekatuta dute mugak zeharkatzea. Koronabirus kasuak bertan ematen hasi zirenean herrialdeak ez zuen neurri zorrotzak ezartzeko apustua egin, eta orain, kasuak gora egin dutelako, uste dute hasieratik murrizketa gehiago jarri behar izan zituztela.

«Itzulera bidaia gogorra izan zen», aitortu du Cuevasak

Edinburgo aukeratu zuen praktikaldia egiteko, baina alarma egoera hasi zenean etxera bueltatzea erabaki zuen.



Eskoziako lurraldera otsailean joan zen Cuevas, praktikak bertan egitera.

AITZIBER CUEVAS

Oliveiraren modura, Animazio Sozio Kultural eta Turistikoko ikaslea da Cuevas. Edinburgora joan zen otsailaren amaieran, eta praktikak hasi zituen Mackenzie School of English-en. Eskola horretara gazteak eta helduak joaten dira ingelesa ikastera, eta baita institutuak taldeak ere, aste batzuek hizkuntza sustatzera eta eskolan antolatzen dizkieten irtenaldi eta ekintzak egitera.

Cuevasen lana administrazio lanetan jardutea eta ekintzetan parte hartzea zen, baina berak ere, besteen moduan, praktikaldia eten egin behar izan zuen. «Oso gustora nengoen, bai eskolan eta baita hirian ere. Edinburgo oso polita da, eta bertako jendea oso atsegina da».

Koronabirusaren inguruan dio, egoera lasaia izan dela bertan. «Pandemia dela eta lasai egon gara, Edinburgon kasu gutxi zeuden, eta itxialdia ez da gogorra izan», baina ez zuten hiritik ateratzeko aukera izan. Horregatik, bertan gelditu edo etxera

itzultzeko erabakia hartzeko unea iritsi zenean, aho-batez, dio, «pisukide guztiak bueltatzea erabaki genuen. Itzulera bidaia gogorra izan zen».

Etxera bidean berehala ohartu ziren pandemia egoera larria zela, Europa mailan, ere. «Edinburgotik Bilbora bidean Londresen eman behar genuen gaua, baina bertarako hegaldia bertan behera gelditu zen eta hotela itxi egin zuten». Azkenean, zorionez, autobusean iritsi ziren Londres hirira eta gero errazagoa izan zitzaizkien etxerako buelta: «ia bi egun eman genituen lo egin gabe, baina azkenean, iritsi ginen».

Koronabirusarekin gaixotutako lehenengo kasua martxoan eman zen, Eskozian. Hala ere, kasuak areagotu egin ziren eta horregatik, jate-txeak, kafetegiak, gimnasioak eta zinemak aldi baterako istea erabaki zuten, pandemiaren hedapen masiboa saihesteko prebentzio-neurri gisa. Erresuma Batuak munduko hildako kopuru altuenetarikoa du, eta desadostasun handiak ditu Eskozia, Gales eta Ipar Irlandarekin.

«Praktikak bukatzean Portugalen lanean geratzeko asmoa nuen, baina pandemiagatik, hori ezinezkoa izan da»

Gogorra izan zen Oliveirarentzat praktikaldia bertan-behera utzi behar izatea. Hala ere, etxera ez bueltatu eta Bejako hirian geratzeko apustua egin zuen.

RAQUEL OLIVEIRA

Animazio Sozio Kultural eta Turistikoko ikaslea da, Oliveira. Gogotsu abiatu zen otsaila amaieran Bejako hirira, garun paralisia duten pertsonen zentru batean praktikak egitera: «Mendekotasun handia duten pertsonak egoten dira bertan, eta nire eginkizunen artean, animazio ekintzak egiteaz gain,

beste hainbat eginbeharretan laguntza ematea zen». Hala ere, bertara iritsi eta bederatzigunetara alarma egoera piztu zen eta etxean gelditu behar izan zuen, itxialdia egiten. Horregatik, aurretik zehaztutako planak aldatu behar izan zituen.


Hasieratik argi izan zuen bertan geratzeko erabakia: «Portugal oso azkar hartu zituzten neurriak, eta jen-

de gutxiago kutsatu da Euskal Herrian baino». Adierazi du, itxialdia ez zela hain gogorra izan; besteak beste, etxetik ateratzeko aukera zutelako eta bizi zen etxea ere handia zelako: «lorategia genuen», dio. Oliveirak praktikak amaitu ostean Portugalen hainbat hilabetez lan egiteko asmoa zuen, baina egoera dela eta, «hori ezinezkoa suertatu da».



Portugalen izan zen Oliveira, animazio ekintzak egiten.

Kruzigrama matematikoa



HORIZONTALLEAN

1: 6 bider, 2 gehi 2. 0.422 bider 1000. 25 gehi 33. **2:** 301 bider 5. 14244 ken 8621, gehi 2469. **3:** 15en bikoitza. 1 gehi 2. Zero ken zero. 2 ber 6. **4:** 80ren %10. 770 zati 11. 7 gehi 127, ken 61. Biren faktoria-la. **5:** Zero bider 750, gehi 85. Bere hirukoitza 123 da. **6:** 1428 zati hiru. Fibonacciren ondorengotzan 13aren aurretik dagoen terminoa. 441 ken 117, gehi 95. **7:** 44 da bikoitza. 7 bider 25. 205 ken 142. **8:** 2 ber 1 gehi bi. 7500000 zati 10000. 128 ken 105 gehi 56. 10en %20. **9:** 1087 ken 66 ken 30. 125 bider 5



BERTIKALEAN

1: 105800 zati 100, gehi 89. 439 ken 235, gehi 221. **2:** 568 ken 21, ken 97. 87200 zati ehun. Zortzitar sisteman 11. **3:** Biderketan, elementu xurgatzailea. 324 gehi 496, ken 64. 619 ken 540. **4:** 5343 ken 813. 55, gehi 96. **5:** 200en %1. 44 gehi 43. **6:** 187 bider 15, gehi bi. 57600 zati ehun. **7:** Bestearen eskuin aldean balioa bikoizten duen zenbakia. 359 ken 301, gehi 286. 69 gehi 40, ken 17. **8:** 725 ken 11, ken 18. 29 bider lau. Pentagramaren puntak. **9:** 207 bider 6. 233 bider lau.

Ariketa matematikoa

<input type="text"/>	+	<input type="text"/>	-	<input type="text"/>	=	3
-		x		-		
<input type="text"/>	x	<input type="text"/>	-	<input type="text"/>	=	5
+		+		+		
<input type="text"/>	-	<input type="text"/>	x	6	=	6
=		=		=		
8		7		4		

Ezberdintasunak



IRAGARKI MERKEAK

Magisteritza ikasten duen 20 urteko neska euskalduna udaran haurrak zaintzeko prest. Deitu: 689 470 760
Neska prest udaran klase partikularak eman eta umeak zaintzeko. Deitu: 678 22 57 05
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

<p>EGURALDIA GAUR Giro aldakorrarekin jarraituko dugu. Hodeiak ugariak izango dira eta baliteke arratsaldean leku batzuetan euria egitea. Tenperatura apur bat igoko da. Min.12° / Max.21°</p>	<p>BIHAR Bihar ostarteak ikusiko ditugu zeruan. Egoerak hobera egingo du apur bat, baina zerua tarteka lainotuta egongo da. Bihar ere, tenperatura apur bat igoko da. Min.12° / Max.21°</p>
<p>TELEFONO ZENBAKIAK</p> <p>TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) UDALZAINGOA 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) DYA 943 464622 AUTOBUSAK Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroea Goizueta-Hernani: 948 514037 JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103 ANBULATORIOA 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)</p>	
<p>FARMAZIAK</p> <p>Egunez: Etxebeste Elkano, 9 (Hernani) 943 552087 Gaez: Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) 943 557738 Goizueta: Nagusia 64 948 514353</p>	

Entsalada bat, Hizki-zopatan



Entsalada hau osatzeko behar izan ditugun gai guztiak hizki anabasa horretan daude. Aurkitu.

A A B A L M A A A A A A A A M B
 S S K R E A S T O M A T E A S A A
 D D J R T Z D D D G A G I D D I S
 F F U A X K O F F F F F U F F T U
 G G O U A U G L G G G G R G G A R
 U U N T V R U U I U E U A U U S D
 A A B Z B Y A B A O A A Z A A T A
 E E A A M T E U E E A E A E O U I
 L L W L A W S K W L L L K L L N N
 K A E K R E K Z U O L I B A K I D
 N Z I N R O I N Y H N L N I P Z I
 J T O A U L M O Z P I N A R I E J
 A A N R B J A A S J P O B I H R A
 B G I R E U U E N T S A L A D O R

Zer dira aurpegiak ahorik gabe... Zer pentsatzen ari diren asmatzea zaila da, ezta? Marraztu iezaiezu zerbait maskaran, alai daudela eman dezan.



Bai
alai!

EGILEA: Garbine Ubeda (Aiurri)

TOKIKOMeko beste hedabideekin elkarlanean argitaratutako atala.

SOLUZIOAK: Sartu www.plazanbazan.eus web atarian eta denbora-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

QRak irakurtzeko aplikazio batekin irakurri



Aurrematrikula irekita ekainaren 1etik 19ra

URUMEA PUBLIERREPORTAJEA

Martutene Lanbide Eskolak bi espezializazio mota eskaintzen dizkie, Oinarrizko Lanbide Heziketa ikasi nahi duten gazteei:

- Elektrizitatea-Elektronika
- Informatika-Komunikazioak

Zer da Martutene Lanbide Eskola?

Martuteneko 27 poligonoan kokatutako Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastetxea gara. Gure ikasleei lan munduan sartzeko edo bere ikasketekin jarraitzeko oinarrizko formakuntza ematen diegu. Zentro txiki bat gara, ikasleei banakako arreta eskaintzen diegu, eta familiekin oso harreman estua dugu.

Zer esan nahi du OLHK?

Oinarrizko Lanbide Heziketa. DBHko helburuak lortu ez dituzten gazteei zuzenduta dagoen hezkuntza-programa bat da. Programa honetan 15 eta 17 urte bitarteko gazteak sar

daitezke. Gazteentzako ibilbide alternatiboa da. Ikasleak eta familiak OLHN hastea ez dute bizi behar porrota bezala, beraien helburuak lortzeko aukera berri gisa baiziki.

Zein espezialitate eskaintzen dituzue?

Elektrizitatea-Elektronika eta Informatika-Komunikazioak. Bietan enpresetako praktikak egiten dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, gure web orrian kontsulta daiteke.

Zer lortu daiteke formakuntza honekin?

Alde batetik, Oinarrizko Lanbide titulua lortuko dute, eta bestetik, Kualifikazio Profesionaleko Katalogo Nazionaleko Lehen Mailako Profesionaltasun Ziurtagiria. DBHko titulua ere lortu dezakete.

Zein irtenbide ditu OLHK?

Ikasleak, bukatu ondoren, lan munduan sartzeko prest daude, baina ikasketekin jarraitu nahi badu, Erdi Mailako edozein ziklotan sar daiteke.

ME
MARTUTENE
Lanbide Eskola

**MARTUTENE
LANBIDE ESKOLA**

Ubarburu Pasealekua, 30. 27 poligonoa. Martutene
Tel: 943 46 01 45 - 610 787 001
www.fpmartutene.org

«Geratzen diren hamaika partiduetan garrantzitsuena atsedena eta elikadura dira»

Gorka Kijera futbolari hernaniarrak bihar ekingo dio berriz ere Bigarren Mailako denboraldiari Mirandesekin. Hiru hilabete egon da txapelketa geldirik eta hilabete daramate jokalariek entrenatzen. «Sentsazio arraroak izan ditut itzulera honekin».

URUMEA FUTBOLA

Gorka Kijera hernaniarra Mirandes taldeko kapitaina da eta hiru hilabete geldirik egon ondoren, Bigarren Mailaren 2019/2020 denboraldiari berriro ekingo dio bere taldearekin. Futbola hemen da eta itzulera nolakoa izan den eta nolakoa izango den aztertzen dio Kronikari Kijerak.

Aurrendenboraldi moduko bat egin behar izan dute azken lau astetan. Sentsazioak aurrendenboraldi normal batekin alderatuz oso desberdinak direla dio hernaniarrak. «Arraroa izan da itzulera. Nik pentsatzen nuen berriz ere aurrendenboraldi bat egin beharko genuela, esfortzu haundirekin eta etxera nekatuta itzuliz, baina desberdina izan da. Ere ezezagun batean sartu garenaren sentsazioa dut. Ez zait iruditu aurrendenboraldi gogorra izan denik. Egia esan, ez dakit fisikoki nola iritsiko garen. Gaur egun dagoen teknologiarekin hori oso neurtua dago, baina aurrendenboraldi baten amaieran orain baino nekatua- goa egoten naiz».

Entrenamenduak ez zituzten taldean hasi. Pixkanaka elkartu dira eta «taldean denak batera aritu edo indibidualki eta talde txikitari aritu oso desberdina da. Oso arraroa izan da eta nik uste dena inkognita bat izango dela, bai fisikoki nola egongo garen eta bai txapelketa nondik joan daitekeen».

«Lesio gehiago egongo dira eta horrek kezka sortzen du»

Hori bai, kezka sortu duena lesioen arriskua izan da. «Alemanian gertatu dena ikusita eta aurretik badakigu lesio gehiago egongo direla. Hori asimilatua daukagu. Gehiago zaindu beharko dugu, atsedena gehiago hartu, janaria gehiago zaindu...».

Entrenamenduak ere aldatu ditute azken hilabeteetan. «Aurreneko hamar egunetan saioak bakarrik egin genituen. Gauza desberdinak lantzen dira, bakarrik baloi gabe entrenatzen duzu eta fisikoagoa da. Dena desberdina da. Normaltasuna kostata iritsi da, lehendabiziko hiru aste pasa eta gero. Elkarrekin talde osoak hamar egun egin ditugu entrenatzen eta motza egin zait azken hilabetea. Ga-



Gorka Kijera Anoetan, Realaren aurkako Kopako partiduan.

«Errekuperatzen laguntzen duen entrenamendu ikusezina izango da oso garrantzitsua»

rrantzitsua forman iristea eta lesioak saihestea da».

Bakarrik gehiago entrentzeak lesioak izateko aukera haunditu egiten du Kijeraren esanetan. «Taldean esfortzua explosiboago da, erritmo eta norabide aldaketak, aurkari bat duzu aurrean eta gehiago estutzen da. Horrek denak lesioak edukitzeko aukerak gehitzen ditu. Normalean udaran bost asteko atsedena izaten dugu

«Bost asteko oporrak eta sei asteko aurrendenboraldia izaten dugu, orain alderantziz izan da»

eta sei asteko aurrendenboraldia. Kasu honetan bi hilabete egon gara geldirik eta hilabete bat izan dugu entrenatzeko. Hor-taz, atsedena gehiago eta aurrendenboraldi motzagoa izan dira. Fisiorekin hitz egin dut eta lesioak gora egingo dutela asimilatuta eta argi dugu».

Hori saihesteko garrantzi gehiago emango diote talde guztiek errekuperazioari, hidratazioari eta janaria zaintzeari.

Hiru egunetik behin partiduetan, eta lehendabiziko hamar egunetan lau

«Hiru gauza horiek garrantzitsuak izango dira. Entrenamendua bera baino garrantzitsuagoa izango da entrenamendu ikusezina esaten zaiona eta gero ere kontuan hartu behar da hiru egunetik behin partiduetan jokatu ditugula. Hamaika partidua izango dira hilabete pasatxon. Datozen hamar egunetan guk lau partidua jokatu ditugu. Gu ez gaude horretara ohituta. Nekea etorriko zaigu. Ezin garrantzitsuagoa izango da errekuperazioa partiduetara ongi iristeko eta lesioak gutxitzeko».

Beroa ere kontuan hartu beharreko beste faktorea izango

da. «Tenerifen, Las Palmasen, Albaceten, Almerian, Malagan, Elchen... zelai horietan bero asko egin dezake eta atsedena beharko ditugu ura edateko, bai lehenengo zatian eta baita bigarrenengoan ere».

«Beroa kontutan hartu beharreko beste faktore bat izango da Albacete, Tenerife, Elche edo Almerian»

Seigarren postua edo aurretik geratzea dute helburu

Mirandes taldea zazpigarren postuan dago kokatuta eta azken hamaika partidua hauetan helburua sei aurrenekoetan sailkatzea da. Hirugarrenetik seigarren sailkatura arte igorako playoff-a jokatzeko baitute. Seigarren postua lau puntura dute. Kijerak esperantzak ditu iguera fasea jokatzeko.

«Geratu zenean partidua asko jokatu genituen eta nekea pilatu genuen. Nik uste ongi etorri zaigula geldialdi hau taldea nekatuta zegoelako. Indarrak berreskuratzeko balio izan digu. Beste talde batzuei, ongi zeudenei, momentu txarrean iritsi zitzaie geldialdia eta gaizki zeudenentzako berriz hastea bezala da eta goraka begira jarriko dira».

Mirandesen kasuan Kopako finalerdietara sartzeak esfortzu asko suposatu zien eta «gogorra izan zen eta indarberrituta ekingo diogu itzulerari. Lehengo maila ematen badugu, %100eko indarrarekin, seigarren postua posible da»

Bihar Numanciaren aurka, arratsaldeko 17:00etan

Denboraldiaren berrekiten honetan aurreneko partidua bihar jokatu du Kijerak. Numancia da aurkaria eta etxean jokatu dute. «Aurkari zaila izango da. Lehenengo itzulian errebasoa eman ziguten. Gure helburu berdina dute (puntu gutxitan talde asko daude kokatuta). Guretzako Numancia eredu da, gure ibilbide antzekoa egin du azken urteetan, tamaina ia bereko hiriak dira eta egitura aldetik ere filosofia antzekoak ditugu». **K**

Galarretako frontoiak 50 urte betetzen ditu gaur Urrezko Ezteiak ezin ospatuz

1970 urteko ekainaren 13an zabaldu zituen atea lehenengo aldiz Euskal Jai-Galarreta enpresaren kudeaketarekin eta aurreneko jaialdiko erremonte partidua Pablo Lecumberri eta Salsamendik, Raul eta Arbizuren aurka jokatu zuten.

HERNANI ERREMONTEA

1970 urteko ekainaren 13an zabaldu zituen atea lehenengo aldiz Galarreta frontoiak eta beraz, gaur, 50 urte betetzen ditu. Hala ere, Urrezko Ezteiak ezingo ditu bere egunean bete COVID-19ak sortutako pandemiaren eraginez. Momenturik ezegokienean etorri da osasun krisia Galarretarentzako, baina albiste onak ere badira eta datoren astean gaur zortzi, ekainaren 20an, zabalduko ditu atea berriz ere hiru hilabete eta sei egun erremonte partidurik jokatu gabe egon eta gero.

50 urte ez dira egunero betetzen eta urte guzti horiek nolakoak izan diren gogoratze-ko balio du. Galarreta frontoia Hernaniko Jauregi auzoan dago kokatuta eta herriaren ikur bihurtu da urte guzti hauetan. Pelotaren erreferentzia da, dudarik gabe, eta erremontearen katedrala ere bihurtu da urte guzti hauetan. Hernaniren izena zabaldu du Galarreta frontoia eta leku ezaguna da Euskal Herrikoak eta bertakoak ez diren askorentzat.

Donostian, Gros auzoan, kokatuta zegoen Urumea frontoia erremontearen urte oparoak bizi izan zituen, baina 50 eta 60garren hamarkadan krisi larrian sartu zen disziplina. Nafarroan, Euskal Jai zaharra mantentzen zen eta Madrilen zeuden frontoia ixten joan ziren, horien artean Recoletos famatua. Erremontea hiltzear zegoela oriotar kuadrila batek Galarretaren proiektua jarri zuen martxan eta horien artean zegoen Juan Antonio Ercilla. 40 urtetan, sortu zen egunetik eta 2010garren urtera arte Euskal Jai-Galarreta enpresaren arduradun nagusia izan zen Hernanirekin lotura haundia izan duen oriotarrak.

«Eugenio Azkue oriotarra izan zen bultzatzaile nagusia»

Berriki El Diario Vasco egunkarian eskainitako elkarrizketa batean hasiera haiek nolakoak izan ziren argitu ditu eta memoria ikaragarria duela argi geratu da. Xehetasun guztiak gogoratzen ditu Ercillak.

«Bultzatzaile nagusia Eugenio Azkue izan zen eta nire aita Jose Angel Ercillarekin batera elkarte sortu zuten. Gero gehi-



Galarreta 2010garren urtean berriz inauguratu zen eraldaketa batekin.



50 urte hauetan berrikuntza desberdinak egin dira.

tu ziren Jose Mari Salsamendi, Luis Mari Mujika, Unsain... guztira hamarren bat gehitu ziren proiektura» azpimarratzen du Ercillak.

Urumea eta Recoletos 1968an itxita, 1969ko abuztuan Iruñako Euskal Jai itxi zen eta erremontea desagertu egin zen.

Hala ere, oriotar talde honek Galarretan 20 mila koadroko eremua erosi zuen. Galarreta eraikitzen hasi ziren 1969an. Erremontista profesionalak bildu eta Beran jokatzeko hasi ziren astean behin. Euskal Jai erosi eta berriz ere martxan jarri zuten 1969ko San Saturnino egunean, udazkenean, eta hortik sei hilabetera Galarretaren inaugurazio eguna iritsi zen

1970eko ekainaren 13an.

Argiak joan ziren inauguratu zen momentuan kontagailua lehertuta

Erremontea martxan Hernanin jarri zuten eta ez Donostian. Horretan eragin zuzena izan zuten Fermín Altuna alkateak eta Tedy Setien zinegotziak. «Gu Ibaetan, Lorea inguruan, lur sailak begiratzeko hasi ginen, baina Donostiako Udalak ez zuen begi onez ikusten eta gu Donostia inguruak begiratzeko hasi ginen. Orduan, Altuna eta Setieni eskaintza eta proiektua gustatu zitzaizkien eta horrela eraiki zen Galarretan frontoia».

Prozesua ez zen erraza izan Donostiako Udalak Balda fron-

toiarekin alderatu egin zuten eta, urte horretan jokatzeko zen Munduko Txapelketa. Hala ere, lanak atzeratu eta urte horretan bertan, Zesta Puntako modalitateko Mundiala, Galarretan jokatu behar izan zen irailean. Ercillak gogoratzen du eskapate bezala balio izan zuela txapelketa horrek.

Hiru hilabete aurretik inauguratu zen Galarreta. San Antonio eguna zen eta jaialdia gabez iragarri zen. Leporaino bete zen Galarreta eta inauguratuzat eman zen unean argirik gabe geratu zen frontoia itzalita. «Ez zen ezer ez ikusten eta Andoingo elektrizitate bat agertu zen, Victor Odriozola. Kontagailua lehertu zen, kableak lotu eta argia itzuli zen».

Lehenengo partidua 29na amaitu zen

Lehenengo partidu hura Pablo Lecumberri eta Salsamendik, Raul eta Arbizuren aurka jokatu zuten. Salsamendi haundiaren azkenengo partidua izan zen, 45 urte zituen. Partidua 30era iragarri zen, baina 29nako berdinketarekin amaitu zen. Ondoren pala partidu bat jokatu zuten Gurrutxaga-Canelladak, Mendiluze-Egañaren kontra. Lecumberri eta Raul ziren orduko izar nagusiak 70garren hamarkadan eta Galarretako lehendabiziko bi izarrrak.

Koadroan 40 erremontistekin hasi zen Euskal Jai-Galarreta enpresa. «Eskarmentu haundiko koadroa genuen eta Galarretako eskola jarri genuen segituan martxan». Lehendabiziko hamar urteak igarota urrezko aroa etorri zen, 80garren hamarkada. Izugarriko betekadak izaten zituen frontoia eta abuztuan egunero betetzen zen. Bai, ez da akatsa, egunero-egunero. Larunbatetan bi saio iragartzen ziren; bat arratsaldean eta bestea gauean. Gauekoan zesta punta ere jokatzeko zen. Boli-barko Txikito zen orduko izarra eta bertan jokatzeko zuten.

90garren hamarkada arte, abuztua ez zen beste hilabete guztietan lau jaialdi antolatzen ziren, normalean, astelehena, astearte, ostegun, larunbata eta igandeetan. «Euskal Jaien beste lau iragartzen ziren, 1979ra arte Iruñekoan eta 1979tik aurrera Huarateko Euskal Jai Berrin, guztira zortzi astelehena». Hala ere, Galarretan iragartzen ziren partidu nagusiak. Erremontearen katedrala bihurtu zen.

Guztira 70 pelotari iritsi ziren izatera Euskal Jai-Galarreta enpresan, 55 erremontista eta 15 palista. 70garren hamarkada amaiera eta 80garren hamarkadako arrakastaren ondoren, 90garren hamarkadan krisia pixkana hasi zen eta mende berriaren etorrerarekin areagotu egin zen. 2010garren urtean Ercillak utzi egin behar izan zuen eta frontoia bi hilabetez itxita egon zen, baina Oriamendi 2010 enpresa berriarekin berriz zabaldu ziren atea eta 50 urte bete ditu dagoeneko eta izan daitezela beste 50 gutxienez, hori izango litzateke seinalerik onena. **K**



Tenporek orokorrean udara goibela eta ipar mendebaldeko giro haizetsuarekin iragarri dute

Udarako tenporak mendekoste eguna eta hurrengo asteazkena, ostirala eta larunbata izaten dira eta aurten lainoa, euria, haizea eta temperatura epela izango direla erakutsi dute.

URUMEA EGURALDIA

Udarako tenporak pasa den astean izan ziren. Mendokoste egunaren ondorengo asteazkena, ostirala eta larunbata hartzen dira kontuan iragarpen meteorologikoa egiteko. Egun horietan egiten duen eguraldia behatzen da. Kontuan hartu behar dira, euria edo eguzkia bezalako meteorokoak baino gehiago, haizearen norabidea, zeruaren estaltzea, eta fenomeno fenologikoa ere kontuan har daitezke (hau da, eguraldiaren arabera animaliei eta landareei eragiten dietenak). Hortik aurrera, iragarpena modu ezberdinean egiten da eremuen arabera.

Bi iragarpen-metodo ohikoenak haizean oinarritua eta tenporen egun bakoitzaren behaketa independentean oinarritua dira. Haizean oinarritua jarraitzen bada, tenporen ondorengo urtarok bere tenporetan nagusi izan den haizea izango du nagusi.

Nagusi den haizeak eremu bakoitzean duen eraginaren arabera, hori izango da urtaroen egingo duen eguraldia, oro har. Eta horri erreparatuz gero datorren udan eguraldi goibela eta ipar mendebaldea nagusi den giro haizetsua egingo du. Gurean horrek euria, giro nahasia eta temperaturen aldetik freskoa ekartzen du.

Tenporen hiru egunek hilabete bakoitzean egingo duena behatzen du

Tenporen egun bakoitzaren behaketa independentean oinarrituaren arabera, egun bakoitzean egiten duen tenporen denbora behatuko dugu. Hurrengo urta-

roko hilabete bakoitzak tenpora-egun bakoitzaren denbora bera izango du.

Uztaila euritsua egingo du eta ez bero eta ez hotz

Honela, ekainaren 3an, asteazkenean egin zuen eguraldia ikusi beharko da uztailan egingo duen eguraldia jakin nahi bada. Eta zer eguraldi egin zuen ekainaren 3an? Egundorretan giro hezea egin zuen, euria izan zen nagusi ia egun guztian zehar Euskal Herria osoan, eta temperatura epela izan zen. Ez zuen ez bero eta ez hotz haundirik egin. Beraz esan liteke, tenporen arabera, uztaila euritsua egingo duela eta lainoa izango dela nagusi.

Bi iragarpen metodo ohikoenak haizean oinarritua eta egun bakoitzaren behaketa independentean oinarritua dira

Abuztua lehorrakoa, baino oso haizetsua eta ez du berorik egingo orokorrean

Behatu behar den bigarren eguna ostirala izaten da, abuztuaren zer giro egingo duen jakiteko. Aurten ekainaren 5ean egin zuen eguraldia. Eta nolako joera ikusi zen ekainaren 5ean? Haizea asko indartu zen mendebaldetik. Hori bai, euririk ez zuen apenas egin, zerbait goizaldean, eta arratsaldean urdinguak zabaldu ziren.

Tenperatura aldetik ez zuen hotz haundirik egin, baina berorik ere ez. Abuztua izaten da



Udara tenporak ez dute beroa iragartzen eta beraz mendira joateko giro ona geratuko da.

hilabeterik beroena, baina tenporak jarraituz gero ez da maiztzen izan duguna baino beroagoa izango. Uztaila baino lehorrakoa izango da, baina euria eta lainoa ere izango dira.

Irailean berriz ere euria, hotzagoa eta haize aldakorra

Udako tenporen hirugarren eguna ekainaren 6a, mendekoste eguna ondorengo larunbata, eta egun horretan berriz ere lainoa izan zen nagusi. Zeruan eguzkirik ez zen ikusi eta arratsaldean euria hasi zuen eta tenperaturak behera egin zuten. Gainera, haizea iparretik eta mendebaldetik ibili zen indartsu eta ekialdeko ikutua ere izan zuen, aldakorra izan zen.

Horrek esan nahi du, irailan haizea aldakor ibiliko dela, hila-

bete argitsua ez dela izango, euria egingo duela nahiz eta ez izan euri askorik eta tenperatura aldetik, orokorrean, fresko epeletik gehiago izango du berotik baino.

Aipagarria da tenporen hiru egunetan hego haizearen arrastorik ez dela izan eta beraz ez da espero hego haizearen protagonismorik aurtengo udaran. Iparrak eta mendebaldea izango dira nagusi eta hezetasuna, lainoak eta tenperatura epelak, ez hotz eta ez bero, izango dugu 2020 berezi hobetuko udaran.

Predikzio guzti hauek tenporen arabera dira, eta jakina da kritika ugari ere jasotzen dutela zientziaren ikuspuntutik. Tenporek ez dute zentzurik eguraldiari buruzko iragarpenak egiteko orduan zientziaren ikuspuntu horretatik.

Udazkeneko tenporak irailaren 14aren ondorengo asteazkena, ostirala eta larunbata dira, Gurutze Santuaren goraiapamen eguna, aurten irailak 16, 18 eta 19. **K**

IRUBIDE JATETXEA

Zure jatetxea, Epelen



Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702